

POS-B13

*PD en Medio Ambiente y Recursos Marinos***BIZKAIKO GOLKOKO ENGRAULIS ENCRASICOLUS ANTZOAREN AZTERKETA MORFOMETRIKO ETA GRABIMETRIKOA**

Txurruka, E., Beitia, D., Cotano, U., Larrea, M., Ordorika, L., Txurruka, J. M. & Villate, F.

1- EHU 2- AZTI-Tecnalia

2007ko irailaren eta 2009ko maiatzaren artean, Bizkaiko Golkoko mendebaldeko 47 puntu geografikotan 5 arrantza-kanpaina egin ziren eta guztira 1384 antxoa arrantzatu ziren. Harrapatu bezain laster, antxoak itsasontzian bertan izoztu ziren, nitrogeno likidotan murgilduz. Azterketa morfometriko eta grabimetrikoak aurrera eraman ahal izateko, antxoak desizoztu egin ziren diseekzionatu aurretik. Ondoren, pisatu egin ziren (pisu bizia, PB) eta luzera estandarra (LE) neurtu zitzairen. Disekzioaren ondorioz, 3 gorputz-atal bereiztu ziren eta, adina jakin ahal izateko, otolitoak atera zitzaizkien. Hidratazio-portzentajeak kalkulatu ahal izateko, gorputz-atal bakoitza liofilizatu aurretik eta ondoren pisatu zen. Pisu biziak eta luzera estandarrak arrantza-kanpainen arabera desberdintzen ote ziren aztertzeke, ANOVA eta ANCOVA analisi estatistikoak erabili ziren. PBei dagokienez, %99,9ko ziurtasun estatistikoarekin esan dezakegu azken hiru kanpainetako (200ko iraila eta 2009ko maiatzeko biak) antxoaren pisuak berdinak direla. Bien bitartean, lehen bi kanpainetan arrantzatutako antxoak nabarmenki txikiagoak ziren, argalagoak hitz batean; hain zuzen ere, 2007ko iraileko antxoaren batez besteko PBa azken hiru kanpainetako antxoarenaren %50aren ingurukoa izan zen eta 2008ko maiatzekoena, laurdena inguru besterik ez. Luzera estandarrari dagokionez, emaitza orokorra PBekin gertatutakoaren berdina izan zen, nahiz eta lehen kanpaina bien emaitzak ez izan beste hiruekiko hain desberdinak. Gorputz-atalen hidratazio-portzentajeei (H-%) dagokionez, azpimarratu behar da gibela dela H-% baxuena duena eta ez dela aldatzen ez antxoaren sexuarekin ez eta adinarekin. Beraz, H-%ari dagokionez gibela da organorik egonkorrena. Muskuluaren eta ugal-aparatuaren H-%etan sexuak eragina du. Bietan arrak dira hidratatuenak. Horrek adieraziko luke emeen zelulak materia organikoz beteago daudela. Adinak ere eragina du organo bien H-%etan, baina ez sexuak bezain bestekoa. Organo bakoitzean, bi eta hiru urteko antxoaren kasuan, H-%ak berdinak dira. Aldiz, 0 urteko antxoaren kasuan, muskuluan desberdintasunak daude beste adinekiko, baina ez ordea ugal-aparatuan.